

6. BEZEROEKIKO HARREMANAK

Bezeroak erakarri eta mantentzeko, harreman pertsonala izango dugu aurrez aurre hitz eginez ofizinan eta automatizatua web gunearen bitartez.

Aurrez aurreko komunikazioa emango da, SEAVI-ko ofizinetara informazio bila datorren jendearekin eta gehien bat ezintasunak duten pertsonekin, izan ere, ezintasunekin lan egiten duten elkarteetara joango gara eskuila prestatzeko prozesu osoan. Hau da, ezintasunak dituzten pertsonak ez dira bere kontutik joan beharko ez ofizinarara ezta hortz kliniketara. Behin batzuk frogatu dutela eta ondo dijoala ikustean, erosten badizkigute eskuilak, ahalik eta erosoan egotea nahi dugu eta horretarako gu joango gara eskanerra egitera erakundera eta behin sortu ditugunean bertan banatuko ditugu.

Webgunean edo gmailez, behin produktua iritsi zaiola mezu bat bidaliko da dena ondo dagoen galdetzeko eta eskerrak emateko gure eskuilari aukera emateagatik. Guran konfiatzeagatik eskertzeaz gain, aipatuko zaio espero dugula dena ondo joatea eta bere gustokoa izana bai epe labur baita epe luzerako.

Denborara joango da mezuak bidaltzen eskuilaren erabilera baloratzeko, bere iritzia emateko eta zeozer hobetuko balu aipatzeko. Honen emaitzak guk gainbegiratuko ditugu gure bezeroen asebetea eta erosi izanaren poza ziurtatzeko

Gainera eskainiko ditugu odontologoaren errebisinoak sei hilabetero ikusteko higieine aldetik hobekuntzak egin diren, egoki funtzionatzen duen eta zuntzen aldaketa egin behar den jakiteko.

Lehenengo zuntzak aldatzeko doain izango da, besteak gero eta denbora gehiago eramane gurekin deskontuak izango ditu. Baina behin eskuil pack bat erostean, eskuila, kutxa eta zuntz aldaketa bat datorrena beherapenak izango ditu, beste eskuil bat erosteko bere familiarentzat eta horrelakoak.

Promozioak egingo ditugu data konkretuetan, adibidez, black friday, gabonetan, BEZ-gabeko egunean... Hauek argitaratuak izango dira webgunean eta sare sozialetan jarriko ditugu.

Aipatu beharra dago aurreko puntuan aipatutakos, ez diogu bezeroei profektua ordaintzea eskatzeko berak ziurtatuta eduki arte bere eskuila sortzen hari dela. Badakigu perteona batzuk daudela ez direnak internetez erostiaz fidatzen beraz, berarekin kontaktua izatean eta pertsonalki berearentzat egokitutako eskuila prestatzen hari garelako ziurtatzean espero dugu guregan duen konfidantza handitzea.

Sailatuko gara ahalik eta harreman pertsonalena lortzen gure bezeroekin, konfidantza, serbitzu egokia eta arreta eskeiniz. Gure ustez oso garrantzitsua da bezeroek gure inguruko irudi ona edukitzea eta gomendatu ahal izatea beraren ezagunei edo familiakoei.